

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jesus Mari Albisu Irastorza Murgi

*Deba,
Gipuzkoa
(1934)*

Aurkibidea



Biografia



Murgi etxean jaioa, ezizen horrekin ezagutzen da herrian. 14 urtera arte Debako San Viator fraideen eskolan ibili zen. Handik irten zenean "Plásticas Reiner" lantegian hasi zen lanean, aprendiz gisa, eta 50 urte egin zituen bertan lanean, 64 urterekin hartu baitzuen erretiroa. Lantegian lanean hasi zenean, iluntzeetan klase partikularretara joaten zen. Gerora, Reiner lantegiak aprendizentzat eskola jarri zuen eta hara joaten ziren marrazketa eta lantegirako beharrezkoak ziren beste gai batzuk ikastera.

Zintak

DEB-029

- **Proiektua:** Debako ondarearen transmisioa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Baroja, Irati - Olazabal, Jone
- **Data:** 2011-02-09
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Aprendiz moduan Reiner lantegira

- **Erref:** DEB-029/002
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:06:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Lehen 14 urtera arte ibiltzen ziren eskolan; oso gutxik jarraitzen zituzten ikasketak. Bera aprendiz moduan hasi zen lanean Reiner lantegian. Lanetik irtendakoan gau-eskoletara joaten zen, zerbait gehiago ikastera. Lantegiak jarri zien eskola, marrazketa industrial, teknologia eta lantegirako beharrezkoak ziren kontuak ikasteko. Eguneko 4,50 pezeta irabazten zituen hasieran, baina urtetik urtera soldata eta maila igotzen joaten ziren. Soldadutzara joan arte ikasten jarduten zuten.</p>

2. Inguruetako etxeak

- **Erref:** DEB-029/003
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:09:30

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

14 urtera arte Debako eskolan ibili zen. Bera "Murgi" etxean jaioa da eta beraientzat Debara etortzea, "kalera" etortzea zen, lehen tarte horretan ez zegoen ia etxerik eta. Inguruetan ze etxe zeuden azaltzen du. Beraien eskolan behean neskak egoten ziren mojekin eta goian mutilak fraideekin. Urasandi etxea.

3. Gurasoek ordu asko lan egin behar

- **Erref:** DEB-029/005
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:12:35

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Aurrekoek ordu gehiago lan egiten zituztela aipatzen dute. Amak ez zion uzten Jesus Mariri futbolearen aritzen, abasketak apurtzen zituela eta, gurasoen hilabeteko soldata astebetean xahutzen zuelako.

4. Euskararen egoera Deban gerra ostean

- **Erref:** DEB-029/007
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:16:55

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Gerra ostean Deban nolakoa zen euskararen egoera azaltzen dute. Baserrietan euskarari eutsi zitzaion, baina kaleko jendeak asko galdu zuen euskara. Eskolan ere dena gaztelaniaz ikasten zuten eta beste hainbat esparrutan ere gaztelania zen nagusi. Beraiek gurasoei esker eutsi diote euskarari. Lagun-taldean 30 lagun inguru izango ziren eta erdiek egiten zuten euskaraz. Gaztelania beharrezkoa zuten baserritarrek ere kanpotarrekin hartu-eman izateko. Soldadu joan behar zutenak ere gau-eskoletara joaten ziren gaztelania pixka bat ikastera.

5. Euskarazko izenik ez zieten onartzen eskolan

- **Erref:** DEB-029/009
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:20:50

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Gerra ostean euskarazko izenekin zeuden arazoak. Iñaki Ignacio deitzen zioten eskolan eta Aitor izena zuen bati ere halaxe deitzen zioten, "Aitor" izena ez zela esistitzen esanda. Eskolan sartzeaz bat bandera jarri eta hiru-lau abesti abesten zituzten, tartean Cara al Sol. Euskara gutxi hitz egiten zen Deban.</p>

6. Deban mutil gazteak euskaraz entzutean harrituta

- **Erref:** DEB-029/010
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:22:00

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Behin Iñaki lagun batzuekin euskaraz hitz egiten ari zela Marcelino Egaña etorri zitzaien harrituta mutil gazteak euskaraz ari zirelako. Marcelino Egaña abertzale zaharretakoa zen. Beraiek beti euskaraz hitz egin izan dute 5-6 lagunen artean. Ahoz jasotako euskara dutela eta ez dutela euskara ona erabiltzen uste dute.

7. Debako ikastola, onartutako lehenbizikoa

- **Erref:** DEB-029/011
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:24:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikastolen sorreraz hitz egiten dute. 1964 inguruan hasi zen mugimendua eta zalantza asko izan ziren hasieran, ez baitzekiten ikasketa haiek ontzat emango ote zituzten. Hasieran 8 ume inguru hasi ziren ikastolan. Don Anes abadeak uzten zien lokala hasieran. Iñaki gerora Gipuzkoako Ikastolen Federazioan egon zen. Debakoa izan omen zen Gipuzkoan onartutako lehenbiziko ikastola.

8. Euskaraz egiten zuena ezjakintzat hartzen zen

- **Erref:** DEB-029/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:26:10

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Euskaraz hitz egiten zuena ezjakintzat hartzen zen. Agustin 1961ean ezkondu zen Lasturko emaztearekin. Deban jarri ziren bizitzen eta emaztea haserre

etortzen omen zen erosketak egitetik, euskaraz eskatzearen barre egiten ziotela eta.

9. Garia "txanketian" jotzen ezagutu zuen Iñakik

- **Erref:** DEB-029/013
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:27:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostean ogi beharra zegoen eta garia egiten zen. 1943-44 inguruan Iñakik garia "txanketian" jotzen ezagutu zuen. Garia lehenbizi eguzkitan uzten zen ondo lehortzen eta gero harri baten kontra jotzen zen.

10. Bertako fruta jaten zen

- **Erref:** DEB-029/014
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:27:15. **Bukatu:** 00:27:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Garai batean bertako fruta jaten zen: udareak, aranak, sagarrak... Zuhaitzaren lorea ikusita, jakiten zuten ze fruta zen. Fruta-lapurretan ere ibiltzen ziren, beharra zegoen eta.

11. Debako lanbide eta lantegiak

- **Erref:** DEB-029/015
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:27:55. **Bukatu:** 00:29:30

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Lanbideak

Laburpena:

Aroztegi asko zeuden Deban: Oiartzabal, Peña... Igeltseroak, iturginak eta bestelakoak ere baziren. Lantegi gutxi zegoen orduan. Reiner lantegia plastikoarekin lanean hasi zen lehenengoetakoa izango zen.

12. Debako angulak, famatuak

- **Erref:** DEB-029/016
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:29:30. **Bukatu:** 00:32:30

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak

Laburpena:

Debako ibaian angula asko hartzen zen. Bakoitzak bere kanala izaten zuen, eta errespetatu egiten zen, noizbehinka haserreak ere egon arren. Angula asko hartzen zenez, "benta" egiten zen. Aginagakoa baina famatuagoa omen zen orduan Debako angula. Bi angula mota bereizten ziren Deban: "de la isla" eta Sasiola ingurukoa. Artzabal inguruan edo Astigarribia inguruan egiten zen angulatan. Batzuetan familia osoak joaten ziren angulatara, diru asko irabazten zen eta.

13. Lagunak eskola garaitik

- **Erref:** DEB-029/018
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:33:05. **Bukatu:** 00:34:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Lagun-taldea eskolatik sortutakoa dute. Itziarko jende gutxi etortzen zen orduan Debara, eskolan Itziarren bertan ibiltzen ziren eta. Hangoek zatiketa ere ez omen zuten jakiten. Beraiek matematiketan gehixeago ikasi omen zuten.</p>

14. Mutriku eta Deba arteko muga ibaiaren erdi-erdian

- **Erref:** DEB-029/019
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:34:50. **Bukatu:** 00:37:05

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurak eta lur pribatuak

Laburpena:

<p>"Murgi" Mutriku partean jaioa da, bere etxea zubiaren beste aldean zegoen eta. Mutriku eta Deba arteko muga ibaiaren erdi-erdia omen da, eta zubian kako bat dago horren adierazgarri. Garai batean katea jartzen zen zubian muga markatzeko eta batetik bestera pasatzeko ordaindu egin behar izaten zen. Zubiaren beste aldekoen bat hiltzen zenean, zubian, muga-mugan, mahai bat jarri eta gorpua han jartzen zen. Debako abadea ere mugaraino etorri eta bedeinkapena ematen zion. Lur-ematea Deban izaten zen.</p>

15. Debarra, nahiz eta Mutriku partean jaio

- **Erref:** DEB-029/020
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:37:05. **Bukatu:** 00:38:35

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Zubiaren beste aldeko etxeak, tartean Murgi etxea, legez Mutriku ziren, baina elizaz Debara jotzen zuten. Urasandi etxekoen inguruko kontuak. "Murgi" k dio bera inoiz ez dela mutrikuar sentitu, bizimodua guztia Deban egin izan du eta.

16. 6 urterekin Maria "Azpeitti"ren eskolara

- **Erref:** DEB-029/021
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:38:35. **Bukatu:** 00:39:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Iñaki Artzabalgoa da. Mutil kuadrilla bat etortzen ziren Artzabaldik. 6 urterekin "Azpeittinian" hasi zen eskolan eta 9 urtetik 14ra bitartean maristekin ibili zen. Maria "Azpeitti" eskolak ematen zituen emakume bat zen. Bere anaia, Jose Maria Izagirre, alkate izan zen gerra ostean.

17. "Soro feria" ala "Zoro feria"?

- **Erref:** DEB-029/022
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:42:18

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Iñakik gaur egun oraindik baden eztabaida bat azaltzen du: "zoro" feria" ala "soro feria" den. 1930-1936 bitartean pertsona batzuk berezi jantzita azaltzen hasi omen ziren urte berriko feriara. Eta jendea orduan hasi omen zen "Zoro ferixia al da hau?" esaten. Iñakik dio bere gurasoek, arrebak, Agustinen aitak eta beste batzuek ere baieztatu diotela uste hori. "Murgi" k uste du inguruetako baserritarrek euren lehenbiziko erromeria inportantea izaten zutela urte berriko feria eta haiek ere "zoro" antzera etortzen zirela, eta hortik ere badatorrela izena.

18. San Roke bezperan gaupasa

- **Erref:** DEB-029/023
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:42:18. **Bukatu:** 00:43:50

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Baserritarrak bakoitza bere auzoko erromeriara joaten ziren normalean. San Roke jaiak nola ospatzen ziren. Orduan ere gaupasa egiten zen goizean entzierrora joateko. Tabernak goizeko ordu biak baino lehen ixten ziren eta Bodegan elkartzen ziren denak.

19. Mozorrotzearren 10 pezetako isuna

- **Erref:** DEB-029/024
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:46:25

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gerra aurretik inauteriak ospatzen ziren, baina euren sasoian debekatuta egon ziren. "Murgi"k ez du oroitzapen onik moztaroeekin. Soldaduskara joan aurretik, despedida egin zuten lagunek; eta, jai-giroan zebiltzanek, txapel bat jantzi zuen batek. Aguazila etorri zitzaizen txapela kentzeko esanez eta eztabaida izan zuten. Hurrengo egunean, 10 pezetako isuna eraman zien aguazilak.

20. Santa Ageda eskeko ohitura, baserritarrena

- **Erref:** DEB-029/025
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:46:25. **Bukatu:** 00:47:20

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Kaletarrek ez zuten Santa Ageda eskean ibiltzeko ohiturarik; baserritarrek ibiltzen ziren. Uztapide, Basarri eta beste bertsolari ezagun batzuk ere etorri izan ziren. Baserritarrei esker gorde dela ohitura hori diote.</p>

21. Bertso giroa Deban

- **Erref:** DEB-029/026
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:47:20. **Bukatu:** 00:48:55

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Urte berri eguneko feriara etortzen ziren bertsolariak, baina Deban ez omen da egon bertsotarako girorik kaletarren artean. Baserritarren artean bai; bazeuden bertsotan aritzen zirenak ere. Uztapide eta Zubeltzu aipatzen dituzte. Itziar inguruan soinu-joleak ere baziren: Sakabi, Txankarta...</p>

22. Gerraostean dantza-taldeak debekatuta

- **Erref:** DEB-029/027
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:48:55. **Bukatu:** 00:50:10

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Beraiek ez zuten dantzan ikasi, euren garaian debekatuta zegoelako. Taldeko dantzak ere debekatuta zeuden. Gerra aurretik bazegoen dantza-taldea. "Txatua" eta beste batzuk aipatzen dituzte.

23. Nemesio Etxaniz abadeak irakatsi zien Olentzeroren kanta

- **Erref:** DEB-029/028
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:50:10. **Bukatu:** 00:53:45

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Olentzero ez zen existitzen euren sasoian; Nemesio Etxaniz abadea "desterratuta" omen zegoen Deban eta hark hasi omen zuen Olentzeroren kontua. Beste hainbat euskal kantarekin batera, Olentzeroren abestia irakatsi zien. "Txopa" tailugileak egin omen zuen Olentzeroren aurpegia eta etxeetara eskean joan ziren Olentzerorekin. Pixkanaka indarra hartzen joan zen. Nemesio Etxanizen inguruko kontuak.

24. Neska eta mutilen arteko harremanetan aldaketa handia

- **Erref:** DEB-029/029
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:53:45. **Bukatu:** 00:55:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Euren sasoian neskak eta mutilak beti aparte ibiltzen ziren, bai eskolan eta bai beste lekuetan. Danborradak hasi zirenean, jende asko zegoen momentua aprobetxatzen zuten neskak ukitzeko eta beti errugaberen batek jasotzen zuen belarrondokoa. Gauzak asko aldatu dira arlo horretan. Norbait haurdun gelditzen bazan, ezkontzera behartzen zuten.</p>

25. Debako mutilek zortea; 'Las Femeninas', 'Las Productoras' eta kanpotarren neskameak

- **Erref:** DEB-029/030
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:55:30. **Bukatu:** 00:59:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Deban zortea zuten mutilek bi neska talde etortzen zirelako herrira. Batetik, Las Femeninas, maistratza ikasten zuten neskak, ikasgai modura falangeko kontuak ikastera etortzen ziren hilabeterako. Bestetik, Las Productoras, emakumezko langileak, nagusitxoagoak eta erneagoak. Eta, horretaz gain, kanpotarren neskameak ere etortzen ziren udaran. Haietako asko senargai euskaldunen bila etortzen omen ziren, eta horrela sortutako bikote asko omen dago Deban. Herriko neskak Hijas de Mar kongregazioko kide izaten ziren eta debeku handiak izaten zituzten. Beste herri batzuetan ere Deban baino debeku handiagoak izaten ziren; esaterako, Azkoitian dantza lotua debekatuta zegoen.

26. Tabernetan lagun-taldeak kantuan

- **Erref:** DEB-029/031
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:59:20. **Bukatu:** 01:00:45

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

18-20 urterekin hasi ziren herritik irteten. Hamaikabat futbol taldearekin Elgoibarrera, Mutrikura edo inguruetara joaten ziren, baina azkenengo autobus edo trenean herrira itzultzen ziren. Orduan tabernetan beste giro bat egoten zen: txikiteoan kantuan egiten zuten.

27. Lehen neska gazteak neskame edo lantegira

- **Erref:** DEB-029/033
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:01:20. **Bukatu:** 01:04:15

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Lehengo bizimoduaren inguruko kontuak. Neskek mutilen antzera goiz amaitzen zituzten ikasketak. Lehen neskek josten ikas zezatela zen garrantzitsua eta ikasketei ez zitzaien garrantzirik ematen. Familia handiak izaten ziren ordukoak eta neskak 15-16 urterekin neskame joaten ziren edo bestela lantegira edo josten ikastera. Lantegietan neska asko ibiltzen zen orduan, baina lana utzi egiten zuten ezkontzeko prestatzen zirenean. Reiner lantegian ere gehienak emakumezkoak ziren. Baserriko neskaren bat herrira neskame etortzen zenean, mutilak atzetik izaten zituen, herrikoak "harroagoak" omen ziren eta. Beste neska batzuk josten ikastera joaten ziren, orduan norbere arropa etxean josten zen eta. 2 jostun zeuden Deban.

28. Lehengo eta oraingo moden arteko aldea

- **Erref:** DEB-029/034
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:04:15. **Bukatu:** 01:06:46

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Lehengo eta oraingo moden arteko aldea. Lehen dotore ere jantzten ziren; normala izaten zen igandeetan trajea eta gorbata janztea. Eibarko edo Bergarako neskekin ligatzeko ondo jantzi behar izaten zen. Gaur egun modan dago ilea motz-motz moztea baina lehen soldadutzako zigorrik handiena horixe izaten zen. Lehen apurtutako prakei jartzen zitzaien "txaplata" eta gaur egun modan dago hori ere.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com